

BAOean 2013-11-19

IRAGARKIA

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkureak, 2013ko ekainaren 21ean egindako batzarrean, hasiera batean onartu eban Ostalaritzako Establezimenduak arautzeko ordenantzaren aldaketa, eta 30 eguneko epean jendaurrean egon eta gero, behin betiko onartu da, ondoren adierazoten dan moduan:

OSTALARITZAKO EDO HORRELAKO JARDUERAK IPINTEARI ETA EUREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ORDENANTZEA

1. Artikulua. Xedea.

Hurrengo artikulua barruan sartuko diran ostalaritza eta jolaseko jardueren funtzionamendu zuzena kontrolatzeko udalaren jarduerak arautzea da ordenantza honen xedea, baia jarduerok sortzen dabezan deserotasunetatik herritarrak babestea, batez be, osasun eta garbitasun baldintza normalak aldatzen badabenez edo pertsona zein gauzentzat arriskurik sortzen badabe.

2. Artikulua. Eremua.

Eusko Jaurlaritzako ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan sartzen diran ostalaritza eta jatetxe atalean zein joko, jolas eta zori arloan sartzen diran lokal, instalazio, ikuskizun publiko eta jarduera guztiak sartzen dira Ordenantza honetan. Jendea bizi dan eraikinetan kokatuta dagozan zinemak eta antzokiak be sartzen dira.

3. Artikulua. Kanpoan geratu diran jarduerak.

1.- Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira ostalaritzako behin behineko eta aldi baterako jarduerak, esate baterako: bar zerbitzuak, kafetegiak edo jatetxeak zirkoetan, barraketan, txosnetan edo beste holako egitura desmuntagarrietan, sasoi zehatzetan edo jai guneeetan ipinten diranak.

2.- Halanda guzti be, horreek jarduera guztiak udalaren baimena behar dabe ipinteko eta arau orokorrak betetera behartuta dagoz, batez be, segurtasun eta higiene mailan.

4. Artikulua. Sailkapena taldeka.

1.- Ordenantza honetan sartzen diran jarduera edo establezimenduak, berau apliketako bakarrik sailkatu dira honeetan taldeetan:

- 1. TALDEA. Alkohol bako edariak eta janariak saltzeko baimena daben establezimenduak, baina jatetxe jarduerak izan barik: dastalekuak, izozkitegiak, txokolategiak, txurrotegiak eta honeek lakoak. Jostetarako aretoak be hemen sartuko dira.
- 2. TALDEA. Alkoholdun edariak saltzeko baimendun edo jatetxe jardueradun establezimenduak: tabernak, sotoak, barrak, kafetegiak, kafetegi-barrak, snack-

barrak, jatetxeak, erretegiak, autozerbitzuak, jateko etxeak, txokoak, soziedade gastronomikoak, sagardotegiak eta holakoak.

- 3. TALDEA. Musikea bai baina dantzalekurik ez daben establezimenduak: taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, bar amerikarrak, pubak, disko-barrak, karaokeak eta holakoak.
- 4. TALDEA. Musikea eta dantzalekua edo ikuskizunak egiteko lekua dabenak: Dantzalekua, dantzalekudun pubak, diskotekak, kafetegi-antzokia, ikuskizundun jatetxeak, zinemak, antzokiak eta holakoak. Kasinoak eta bingo-lekuak be sartuko dira.

2.- Alkateari jagoko, udaleko zerbitzu teknikoek aurretiaz txosten arrazoitua emon eta gero, taldeetarik baten barruan establezimendua sartzea, partikularrak aurkeztutako proiektu barruan sartzen diran aurreikuspenen arabera, edota, legezatu gura dan jardurea kontuan hartuta.

3.- Establezimenduren bat honeetatik taldeetatik baten be sartzen ez bada, udal zerbitzu teknikoek emondako txosten arrazoituagaz, daukan jardurearen ezaugarrietan gehien hurreratzen dan taldean sartuko da.

4.- Batera jarduera bat baino gehiago garatzen dauen establezimenduak, eta nagusiena izan ez arren, aurreko ataletan azaldu diranetariko bat danean horreen artekoa, ostalaritza jardurearen eremu barruan sartuko dira Ordenantza honeetako aginduetan.

5.- Establezimendu bat talde bitan sartuta egon ezkeru, erarik mugatuenean aplikauko jako araudia establezimendu guztiari, ingurumenari jagokonean.

6.- Udalak aurretiaz baimena emon barik ezin izango da Taldez aldatu. Kontrako kasuan zigorra jarriko jakonaren oharra emongo jako, baita legea berreskuratzeko beharrezkoak diran neurriak hartuko dira.

II. KAPITULUA BALDINTZA ARKITEKTONIKOAK

5. Artikulua. Azalera publikoa

1.- Establezimendu bateko azalera publikotzat hartuko da, pertsonak egoteko bada eta establezimenduaren zerbitzuak hartzeko bada.

2.- Azalera hori lortuko da, lokalaren azalera erabilgarritik honako erabilera honeek kenduta:

- Bezeroentzako komunen zerbitzua.
- Barrea.
- Sukaldeak
- Biltegia
- Bulegoak

- Langileentzako komumak eta zerbitzuak, eta, orokorrean, bezeroentzako erabileratik kanpo geratzen diran gune guztiak.

6. Artikulua. Establezimenduen gitxieneko altuerea

1.- Gitxieneko altueratzat hartu behar da, lokalaren zorua eta sabaiaren amaierara osotzen dauden edozein elementuren (apaingarriak izan ezik) artean dagoana.

2.- Lehen solairurako edo sotorako ezarritakoaren kalte barik, gitxieneko altuera libre, zarata-moteltze lanak amaitu eta gero, 2,50 metrokoa izango da, komunetan, aldageletan eta biltegietan izan ezik, honeetan, 2,20 metrokoa izango da.

7. Artikulua. Establezimenduetarako sarrerea

Establezimendurako sarrerea zuzenean egingo da kaletik edo erabilera publikoko bidetik, edo gune libre pribadutik, baina ez inoiz, elementu pribatibo komunetatik.

8. Artikulua. Komunak

- A) Erabilteko erosoak izateko neurri egokiak eukiko dabez komunek. Egokituta ez dagozan komunetan azalerarik txikiena 1,20 metrokoa izango da eta alboak 80 metrokoa gitxienez.
- B) 200 m²rainoko azalera publikoan komun-gela bi eskatuko dira, bat andrazkoentzat eta bestea gizonezkoentzat.
- C) 200 m²tik gorako azalera eta 100 m² gehitzen dan bakotzeko, komunak unidate bitan joango dira gehitzen (bata andrazkoentzat eta bestea gizonezkoentzat). Gizonezkoentzako komunetan, ontzien kopuru erdia kendu eta horreen ordean hormako pixatokiak jarriko dira.
- D) Komunek ez dabe eukiko komunikaziorik janariak erabili, batu edo kontsumitzen diran lekuakaz. Komunak eta establezimenduen gainerako lekuen artean, komun-aurreko aretoak jarriko dira, eta eurotan egongo dira konketak.
- E) Horreetan konketetan, ur edangarria egongo da, xaboi likidoa dosifikatzaile eta guztikoa, paper higienikoa, aire beroko esku-lehorgailuak edo erabilera bakarreko toailak. Kasu honetan erabilitakoak botateko ontziak jarriko dira.

9. Artikulua. Aldagelak

1.- 100 m²ko edo handik beherako azalera duten establezimenduek langileentzako armairuak edo takilak euki beharko dabez, sukaldetik kanpo jarriak. Han itziko dira kaleko erropak eta oinetakoak.

2.- Aldagela horreetako azalera erabilgarri osoa 6 m²koa izango da gitxienez, lokalaren guztiko azalera 100 eta 200 m² artekoa bada eta 10 m²koa, 200 m²tik

gorakoa izan ezker. Komuna eta aldagelea areto independenteetan egongo dira eta aldageleak komun-aurreko aretoaren zeregina bete leike. Komun-aurre horretan takilak eta konketak jarriko dira. Konketa honeetako iturriak ez dira zabalduko eskuz eta ur hotza eta beroa eukiko dabez.

3.- Aldageletara ezin izango da sartu zuzenean ez sukaldetik ez jantokietatik, ezta janariak prestatu, erabili edo batzen diran lekuetatik.

10. Artikulua. Hondakin solidoentzako aretoa

1.- 200 m²tik beherako azaleradun establezimenduek sastarrentzako bakarrik erabiliko diran otziak eukiko dabez, errez garbitu eta desinfektatzekoak, itxiera hermetikodunak eta sortzen diran hondakinen bolumenagaz bat datozen neurri eta kopuruetan. Birziklatzeko aukerea be kontuan euki beharko da.

2.- 200 m²tik edo handik gorako azaleradun lokalek edo 400 m²ko edo handik beherakoek, areto itxia eukiko dabe lana burutzen dan lekutik hurre eta 1.100 litro sartzeko gai dan ontzi normalizadua bertan eukiteko modukoa. 400 m² horreetatik gorako 100 metro karradu edo zati bakoitxeko, gaitasun bereko beste kontenedore bat gehituko da. Areto hau ez da komunikatuko zuzenean janariak erabilten diran guneakaz. Hormak eta zoruak iragazgatxak izango dira, leunak, errez garbitu eta desinfektatzekoak, lokailu biribilakaz. Sei metro karradutik gorako sastar-gelek ur-puntu bat eukiko dabe eta zoru inklinadua kainu-zulorantz.

11. Artkulua. Biltegia

1.- Establezimendu guztiek eukiko dabe gune bat biltegiara zuzendua, kutsadura iturri guztietatik urrundua, sukaldetik independentea eta bertara errez heltzekoa. Era egokian aireztatuta egongo da eta makinaren funtzionamenduak ez dau eukiko beregan eraginik ez tenperatura igoterik.

2.- Honek biltegi-guneak lokalaren azalera osotik % 5aren azaleratik gorakoa eukiko dau, eta paramentu leun eta errez garbitu eta desinfektatekoak eukiko dauz.

III. KAPITULUA BALDINTZA TEKNIKO SANITARIOAK

12. Artikulua. Baldintza tekniko-sanitarioak

1.- Lokalenak:

- A) Bezeroentzako barrea daben establezimenduek ur-edangarri hartune bat edo gehiago eukiko dabe eta ur-hondakinen urtekerak be bai.
- B) Jendaurrean jarritako janari guztiak bitrinetan egongo dira babestuta, eta beharrezkoa izan ezker, izozkailudun erakustegietan (itsaskiak, arrainak, maionesazko edo arrautzazko pintxoak, etab.) Ur hotz eta berodun konketea be euki beharko dabe.

- C) Intsektuak eta arratoiak ez ugaritzeko beharrezko elementuak eukiko dira, eta aldizka desinfektatuko da lokala, eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko jarduerak burutuko.

2.- Sukaldeenak:

- A) Pieza bereziko zoru sendoak eta iragazgatzak, kainu erdiak eginez plano bertikalakaz bateratzen diran ertzetan.
- B) Garbitzen diran hormak.
- C) Aireatze zuzenerako leihoak, zuloak edo irekiguneak, mailazko sarea euki beharko dabe, intsekturik sartu ez daiten euretatik.
- D) Ur korrante hotza eta beroa eukiko dabe.

3.- Langileenak:

Jarduera honeetan lan egiten daben guztiek, janariak erabilteko baimen-txartela euki beharko dabe eta indarrean dagozan xedapen guztiak bete. Xedapen honeen artean dago, Eusko Jaurlaritzako urriaren 2ko 211/2001 Dekretua, janariakaz dabilzanen eten bako formakuntzeari buruzko xedapen gehigarriak ezarten dauzana (2001eko urriaren 22ko Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala).

IV. KAPITULUA AIREZTAPENERAKO BALDINTZAK

13. Artikulua. Bezeroei zuzendutako guneak

1.- Bezeroei zuzendutako guneetan airea barriztatzeko metro karradu eta orduko 20 metro kubikoko gitxieneko emaria bermatzen dauen aireztapen artifiziala derrigorrezkoa izango dau. Ez dau eragingo honek hatsik, zaratarik ez dardararik auzoan.

2.- Bezeroei zuzendutako azalerea 100 m²tik gorakoa danean, eraikinaren hegaletik gora metro bitara ebakutzen dan aireztapena eukiko dau.

3.- 100 m²tik beherako bezeroei zuzendutako azalerea eukita, lama bidez ataraten danean, sestra ganean, gitxienez metro biko altueran jarri beharko dira, eta jarduera honi ez jagokon beste edozein zulo edo hutsunetik metro bitara.

14. Artikulua. Sukaldeak

Establezimenduan, sukaldea, frijigailua, erretegia edo kea eragiten dauen beste edozein elementu erabilten danean, material erregatzezko bide estanko batetik atarako dira keok, eraikinaren hegaletik metro bi gorago. Horretarako, eraikinak izan daikezan aireztatze bide ohikoak erabili leikez, beti be, hats, zarata eta dardararik eragin barik.

15. Artikulua. Komunak eta aldagelak

1.- Komunetan eta aldageletan, kanpora ataraten dan aireztapen naturala edo artifiziala egotea eskatuko da.

2.- Aireztapen sistema iraunkorrik euki ezean, komunetako eta aldageletako airea atarako da argia biztuteko etengailuari emoten jakonean edo komuneko bonbeari emoten jakonean.

16. Artikulua.- Sastarrentzako aretoak

Sastarrentzako aretoak aireztatze sistema artifizialez horniduta egongo dira, kanpora atarako da airea hatsik, zaratarik edo gogaitasunik eragin barik. Horretarako, beharrezkoak diran ainguratze sistema egokiak eukiko dauz eta kanpora urten orduko hatsik ez sortzeko, arazte-ekipo bat.

V. ARTIKULUA SUTEEI AUREA HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

17. Artikulua. Konpartimentazioa

1.- NBE-CPI-96 araudiaren 2. kapituluak dinoana edo horren orde z ezarri leiken beste edozein arau bete beharko dabe establezimenduek, konpartimentazioa, ebakuazioa eta seinalizazioari jagokenean.

2.- Ordenantza honen menpe dagozan establezimendu guztiek ondo ikusteko lekuan jarriko dabe, zenbat jende sartzeko gaitasuna daukien onartuta. Udaltzaingoa kontrolatuko dau kopuru honetatik gora bezerorik ez sartzea.

3.- NBE-CPI-96 edo honen orde zko arauak aginduta, sartzeko atea kanporantz zabaldu behar diranean, fatxadearen lerroan egongo dira, zabaldukeran kaleraino etorri ez daitezana.

4.- Larrialdietarako ate guztiak izuaren aurkako itxieraz horniduta egongo dira. Ateotara heltzeko bidean ezin da izango da egon ezelako oztoporik.

18. Artikulua. Beste material batzuk

Ordenantza honen menpe dagozan etablezimenduetan erabiliko diran materialak, NBE-CPI-96 Arauaren 3. Kapituluak ezarritako jarrera eukiko dabe suaren aurrean. Administrazioak homologatutako laborategi ofizialak egingo dauz horretarako UNE 23727aren araberrako saioakaz egiaztatuko dabe jarrera hau.

19. Artikulua. Suteen aurkako instalazioak

1.- Establezimendu honeetan jarri beharreko suteen aurkako derrigorrezko instalazio orokor eta berezi gitxieneoak, NBE-CPI-96 Arauaren 5. kapituluaren edo haren orde zko arauaren ezarritakoak izango dira. Halanda guzti be, egurrezko egituradun eraikinetan dagozan jardueren suteak automatikoki detektatzeko instalazioa euki beharko dabe.

20. Artikulua. Argiak

1.- Ohiko argiaz kanpo establezimenduek larrialdiko argia eukiko dabe eta seinaleena be bai urtekerako ateen ganean, eskaileretan, pasilloetan eta atarrietan, lokalaren eskailera bakotxean larrialdiko argiei konektatutako seinale-pilotoak jarriko dira.

2.- Neoizko errotulu argitsuak eta tentsinozko lanparak babestuta egongo dira, zabaltzen diranean amata egiten diran koadroakaz eta indarreko planeamenduak onartzen dauzan lekuetan zuzi erara bakarrik jarri leikezanak.

3.- Instalazio honeei apliketakoak dira Tentsino Apalerako Araudi Elektronikoa eta arau osagarriak.

VI. KAPITULUA ZARATAK TRANSMITITZEKO BALDINTZAK

21. Artikulua. Norainokoa

1.- Ordenantza honen barruan sartzen diran jardueren zaratek arazorik ez sortzeko aurrea hartzea, zaintzea eta gertau ezkerro, zuzentzea.

2.- Helburu honeguz, zarata mailentzako balore mugak ezarten dira kapitulu honetan. Eragile honeen aurrean pertsona bakoitxak daukan sentsibilitadeara ez da berbera, beraz, ordenantza honeguz herritar kopuru handi batentzat baldintza egoki batzuk bermatu gura dira.

22. Artikulua. Bizitegi erabilera eta hotel barruetako zaratak

1.- Hoteleko eta bizitegi-tako erabilera modura hartuko dira Arau Subsidiarioetan agertzen diranak.

2.- Ostatu eta josteta jarduera guztiek mugatuta daukiez zaratak bizitegi eta hotel erabileretako logeletan eta egongeletan:

- Goizeko 8etatik gaueko 22etara: minutu baten 40 dB(A) Leq pareko maila jarraian eta 45 dB(A) Lmax-en.
- Gaueko 22etatik goizeko 8etara: minutu baten 28 dB(A) Leq pareko maila jarraian eta 33 dB(A) Lmax-en.

3.- Ostalaritzako jarduera baten funtzionamenduak lokal bat baino gehiago hartzen dauzanean, barruko zaratea neurtuko da zaraten arloan baldintzarik txarrenak emoten diran lekuan.

23. Artikulua. Lokaleko zaratea

1.- Ordenantza honen barruan sartzen diran jarduerak soinua erreproduzitzen dauen aparatuek izan ezkerro (irratia, telebista, hari musikala, musika tresnak, etab.), sortutako zaratearen maileak mugatzen dauen sistema jarri beharko dabe, ezarritako mugak beteten dirala bermatzeko.

Ordenantza honek ezarritako zarata mugak gainditzeko ezinezkotasuna bermatu behar dau sistema mugatzaile horrek.

Aparatua mugatuta egongo dan zarata maila orokorra lortuko dogu, 20 dB(A), isolamendu akustikoaren indizea, gehituta aireko zarateari, jarduerako etxebizitzetara jagokenez, eta aplikagarriak izan leikezan goragoko mailako beste xedapen batzuek ezarritako mugek kontuan hartuz.

2.- Ikuskatze eta kontrol lanei eraginkortasun handiagoa emon ahal izateko, Udalak erregistro sonometriko sistemea ipintea agindu ahal izango deustso, gero, jardueraren funtzionamenduari buruzko datuak euki ahal izateko, 15 egunetik gorako epe bati jagokonez.

Sistema honen barruan mantentze eta kalibrazino plana be sartuta egongo da eta urtero egiaztatu beharko da.

24. Artikulua. Soinua erreproduzitzen daben aparatuen zaratea zehaztea

Soinua erreproduzitzen daben aparatuen zarata mailea zehazteko errea Eranskinean azaltzen da.

25. Artikulua. Neurri zuzentzaileak

1.- Ordenantza honen aplikazioaren eraginetarako, musika ekipotzat ulertzen da irratia eta telebista ez dan eta soinua erreproduzitzen dauen edozein aparatu.

2.- Zaratea zuzenean zabaldu ez daiten kanpora, musika tresnadun establezimenduetan, derrigorrezkoa izango da larrialdikoak ez diran urtekera guztietan, itxikera automatikodun ate bikoiztuaren instalazino finkoa izatea, sarbide estankodun ataria sortuz.

Ate bietan eukiko da eusteko malgukia, euretariko bat zabalik egongo dala edonoiz bermatzeko. Hobeto plano perpendikularretan ipinten badira.

Jarduerari eskatzen jakon gitxieneko aireko zaratea isolatzeaz gain, ateak jarriko dira, ate artean, markoetan edota zoruan hutsunerik edo bitarterik ez geratzeko moduan. Horretarako lotuneetan tratamendu egokia emongo da.

3.- Musika ekipoa eukiteko baimena daben jarduerak, kanpora emoten daben hutsuneak guztiz itxita dagozala bermatu behar dabe, beraz, ez da onartuko leiho irekigarririk. Derrigorrezkoa izango da neurri hau soziedade gastronomikoetan, sagardotegietan eta honelakoetan, jendea bizi dan eraikinetan kokatuta egon ezkeru.

4.- Gaez funtzionatzen daben jarduera guztiek ateak itxi beharko dabez eta, baita leihoak be, 22etatik aurrera.

26. Artikulua. Makinak, aparatuak eta instalazinoak

Makina modura hartuko dira pieza multzo guztiak euren artean osagai mugikorra izan ezkeru. Fabrikatzailearen aginduen arabera instalatu eta mantendu beharko da, ahalik eta zaratarik gitxieneko eta egituretan dardararik ez sortzeko.

Makinearen pisuari eta biraketari egokitutako euskarriak erabili beharko dira eraikinaren egitureagaz kontaktua daukan puntu guztietan, baita euskarriakaz, sarrera eta urtekerako hodiakaz, aireatze sistemakaz eta ekipo lagungarriakaz.

Aire hartuneak edo kanporako urtekerak behar izan ezker, kanporako emisino zaratatsuen mugak beteten dirala bermatuko daben sistema isilgarriak euki beharko dabez.

Instalatazaileak edo proiektu-egileak proiektuan erabili diran material guztien egokitasunaz informatuko dau.

27. Artikulua. Aireko zaratetik eta inpaktukoatik isolatu beharra

1.- Ostalaritzako eta jostetako jarduerak dabezan lokalak, aireko zarata honeetatik isolatuta egongo dira, ostalaritzea zein bizitegi erabilerei jagokenez:

- Soinu erreproduktore bako lokalak: 60 dB(A)
- I eta II taldeetako lokalak, soinu erreproduktoredun aparatuakaz: 65 dB(A)
- III. Taldeko lokalak, musika ekipoakaz: 70 dB(A)
- IV. Taldeko lokalak, muska ekipoakaz: 75 dB(A).

2.- Inpaktuko zaratetatik isolatzea, bizitegi edo ostalaritza erabilera kaltetuenei jagokenez:

Jarduera bat daukan lokalaren eta goiko pisuaren erabilera arteko presino mailea inpaktu zaraten aurrean, beti neurtuko da inpaktuen makinea lokalean jarrita eta erabilera hori hartzaile modura ulertuta.

Presino mailea definitzen dauen indize mugaren balioa, $L_{nTW} \geq 40$ dB-koa izango da. Kasu berezi batzuetan, maila horretatik gora 3 dB(A)-ko tolerantzia onartuko da.

3.- Artikulu honetan eskatzen diran inpaktuen zarata mailetatik eta aireko zarata mailetatik isolatzeko baloreak, beti ulertu behar dira bizitegi eta ostalaritzako erabilerei jagokenean.

Azaldu diran jardueren ondoko aretoen kasuan, bizitegi edo ostalaritza erabilerakoak ez badira, lokal honeentzat eskatzen dan isolatze akustikoa 10dB(A) gitxituko da, edota bizitegi edo ostalaritza erabilerako gunetan egon arren, honeek eraikinaren elementu komunak (eskaileraburuak, atariak, edo pasilloak) edo teilapekoen zerbitzuko lokalak diranean.

Halanda guzti be, lokal horreetako erabileran aldakuntza baimendurik gertatuko balitz etorkizunean eta bizitegi edo ostalaritza erabileretara eraldatuko balira, egoera barriari gitxieneko isolamendua egokitzera behartuta egongo da ostalaritzako establezimenduaren titularra.

4.- Ostalaritza eta jostetarako jarduera baten funtzionamendua lokal hartzaile bat baino gehiagotara zabaltzen danean, aireko zaratetara eta inpaktuen zarata mailetara isolamendu akustikoak, zarata arloan baldintzarik txarrenak emoten diran lokalari buruzkoak eskatuko dira.

5.- Eskatutako isolamendu akustikoa lortzeko erabiliko diran materialetan Eraikiteko Oinarrizko Arauak edo haren ordezeko arauak ezarritakoa bete beharko da, eraikinak suteen kontra babesteko baldintzak betez.

6.- Dana dala, jardueraren titularra izango da seinalatutako gitxienekoetara isolamendua gehitzeko beharizanaren subjektu pasiboa.

28. Artikulua. Zoru flotagarria

Transmisino arazorik gerta ez daiten egituretan, eraikiten diren lokal barriei, ordenantza honen barruko jarduerarik jarri gura izan ezkeru, zoru flotagarria eukitea eskatuko jake, dagoan forjadutik edo zorutik edo kokatzen dan eraikinaren egiturako ganerako elementuetatik guztiz deskonektatuta. Era berean, honelako lokaletan, barrizte orokorrak egin ezkeru, zoru flotagarria ipintea eskatuko da.

Haren eraginkortasuna behar dan bestekoa izateko kalkulu frogagarriakaz egin behar da zoru flotagarriaren proiektua.

VII. KAPITULUA KOKALEKUAREN BALDINTZAK

29. Artikulua. Kokaguneak

Ordenantza honen eraginetarako, udal mugarte barruan zonalde honeek ezarriko dira:

- a) Zonalde urbanoa, Arau Subsidiarioetan urbano modura sailkatutako zorua izango da, eta urbanizatzeko gai dan zorua edo urbanizagarria.
- b) Zonalde ez urbanoa, Arau Subsidiarioetan ez urbanizagarria modura sailkatuta dagoan zorua.

30. Artikulua. Eraikinaren kokapena

Arau Subsidiarioetan jarritakoaren arabera kokatuko dira jarduerak higiezinan.

31. Artikulua. Zonalde urbanoan kokatzeko baldintzak. Gitxieneko distantziak

(indargabetua)

2.- Joko-aretoen kasuan, joko edo jolas aretoetarako Araudia aldatzen dauen abenduaren 26ko 277/2000 Dekretuak edo haren ordezk egiten danak ezarritakoak araututa egongo dira distantziak.

32. Artikulua. Salbuespenak distantzien mugetan

(indargabetua)

33. Artikulua. Distantziak neurtzeko erak


1.- Distantzien arteko neurtzea biderik laburrenetik egingo da.

2.- Ipinteko diran establezimenduen eta dagozanen artean hurreen dagoanaren distantzia zehazteko, kasu bakoitzean lerro bat ezarriko da: hasikerea, baimenduta dagoan lokalaren fatxada izango da muga-puntua, eskatzen danetik hurreen dagoan fatxada horren alboan, eta, amaiera, jarri gura dan jardueraren lokaleko fatxadaren muga-puntuan, jarrita dagoan jardueratik hurreen dagoan alboan.

Neurketak egiteko, establezimendu baten fatxadaren muga-puntuak honeek izango dira:

- A) Lokalaren perimetroaren ebagiduren artean dagozan puntuak, eraikinaren fatxadeagaz:


Adibideak:



A - NEURKETAK HASTEKO PUNTUA / A - PUNTO INICIACION DE MEDICIONES

- B) Eraikinaren fatxada ganean, lokalaren perimetroko proiektzioen ebagiduren arteko puntuak.

Adibideak:



ZUZENA EZ ZUZENA

3.- Fatxada ganean, lokalaren proiektzioa eraikinaren solairuetako edozein egoeratan egingo da, eraikinaren solairuetan:

34. Artikulua. Establezimenduaren egoeraren arabera distantziak neurtzeko errea


Establezimenduen kokalekuari adituta, euren arteko distantziak holan neurtuko dira:

A) Fatxada edo gune horretako zein eraikin isolatuaren lerro bereko lokalak:


Honeetan hiru kasuetan, distantziak fatxadearen edo hurrengo eraikinaren lerrotik neurtuko dira, aurreko artikuluan ezarri diran erizpide orokorrak eta ezarritakoak kontuan hartuta.

Adibideak:

- Fatxada berean:




- Etxe-uharte berean:



L = BIETATIK TXIKIENA IZANGO DA L / SI L / L' SE CONSIDERARA LA MENOR DE LAS DOS

- Eraikin isolatuetan:




L = BIETATIK TXIKIENA IZANGO DA L / SI L / L' SE CONSIDERARA LA MENOR DE LAS DOS

B) Kale berean eta fatxadako beste lerro baten:

Kasu honetan, kontuan izan beharreko distantzia, definituta dagoan jatorritik abiatuta, kalearen ardatzeraino perpendikularki doan lerroa eta hemendik ebagidura punturaino doana izango da.


DISTANTZIA + 2 L



DISTANCIA = 2 L

C) Alakarik egon ezker:

Hau egoerea etxe-uharteetan emoten danean, eta bazterrek alaka erakoak izan ezker, erizpideak eskema honetakoak izango dira:



35. Artikulua. Urbanoak ez diran gunetako baldintzak

Ostalaritzako establezimenduen araubidea Arau Subsidiarioetan jarritakoa izango da, 2. taldekoen kasuak bakarrik baimenduz.

VIII. KAPITULUA LEGE ARAUBIDEA

36. Artikulua. Lizentziak. Prozedurea

1.- Legeek besterik esaten ez daben bitartean, Alkateari jagoko lizentziak emotea, jagokon espedientea tramitatzearen kalte barik eta indarreko xedapenetan ezarritako aginteek eta erakundeek esku hartuta.

2.- Jarduera lizentziak Obra Lizentziakaz batera emongo dira, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrak ezarritako espedienteak tramitatu eta gero.

3.- Obrak eginda eta lizentziak eskatutako neurri zuzentzaileak hartuta, behin betiko zabaltze lizentzia eskatuko da udalean. Honeri eskaereari gehituko jakoz:

- Obraren azken ziurtagiria, bisatuta.
- Obrako zuzendariaren ziurtagiria, jarduereta eta obra lizentzian jarritako baldintza guztiak bete dirala zehatz ziurtatuz.
- Aireko zaratatetik isolatzeko saioen emoitza, eta, eskatu ezker, kalterik gehien jaso leiken lokalari jagokon jardueraren inpaktuko zaraten emoitza. Isolatze neurriak Eranskinean agertzen diran berezitasunakaz batera egin beharko dira.
- Jendaurreko ikuskizunak eta jolaserako jarduerak burutzeko erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dauz abenduaren 22ko 389/1998 Dekretuak, eta Dekretu honi jagokon erantzukizun zibileko aseguru polizea kontratatu dala konpainia aseguratzailer edo aseguru-artekaritza bategaz ziurtatzen dauen ziurtagiria aurkeztu beharko dau. Ziurtagiri horren edukia 389/1998 Dekretuaren laugarren artikuluan agertzen dana izango da.
- Legalki eskagarriak izan leikezan agiri guztiak.

4.- Behin betiko zabaltzeko lizentzia emon arte ezin izango da funtzionamenduan hasi jarduereta. Hori baino lehen, jagokon udal funtzionario teknikariak ikuskatuko dau, jarduera lizentziak agindu deutsozan neurri zuzentzaileak onartuak izan badira egiaztatzeko.

5.- Udalak behin betiko zabaltze lizentziaren titularrei bialduko deutse egiaztagiria. Era iraunkorrean egon beharko da jendaurrean jarrita, ondo ikusten dan lekuan.

37. Artikulua. Ordenantza honen barruan sartzen diran jarduerak instalatu, handitu edo legeztatzeko behar diran agiriak

1.- Alkate jaunari egingo jako eskaria, honako datu honeek jarririk: eskatzailearen izen-abizenak, Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskalerako Zedulea, helbidea eta telefonoa eta jarduereta non jarri gura dan.

2.- Eskatzaileak ze izakeraz egiten dauen eskaria azalduko dau, bere izenean edo beste batenean ari dan, kasu honetan egiaztatuko dau honek ordezkaturakoaren datu guztiakaz.

3.- Proiektu tekniko erantsiko jako eskariari, lau aletan, profesional adituak edo adituek egina eta Elkargo Ofizialak bisadua. Datorren artikuluan azalduko da zeintzuk agiri euki behar dauzan proiektu teknikoak.

38. Artikulua. Proiektu teknikoaren edukia

Aurreko artikuluan azaltzen dan proiektu teknikoan Memoria eta Planoak sartuko dira.

Honako puntu honeek zehaztuko dira memoria:

2.1. Partikularraren ustez, ipini gura dan jardurea zein Taldetan sartzen dan, 4. artikuluan ezarritako sailkapenaren arabera.

2.2. Jarduerearen ezaugarriak, erabiliko diran lehengaiak, eta honeen ezaugarriak, kopuruak eta elaboratze prozesuak.

2.3. Lokalaren eraikitako azalera osoa eta berau osotzen daben dependentzia bakotxaren (bezeroentzako gunea, komunak, aldagelak, biltegiak, etab.) azalera erabilgarria.

2.4. Jarriko dan makineria, bakotxaren muetea, ezaugarriak eta euron indarra. Jardurea handitzea balitz, bereiztu egin beharko litzateke baimenduta dagoan makineria eta jarriko dan barria.

Makineria bada eguneratuko dana, barriak zein ordezkutzen dauen be azaldu egin beharko da.

Lokalaren zati bat etxeen azpian egon ezker, eta beste zati bat etxe-uharte barruan edo beste kokaleku baten, kokagune bakotxean dagoan makineriaren barri emongo da.

Jarriko dan makineriaren aireko zaratea eta dardarek gitxitzeko erabilitako materialak azaldu eta euren kalkulu justifikagarriak egitea.

2.5. Jarri gura diran musika aparatuak, irratia, telebista, musika haria, soinu tresneria etab.

Horreen aparatuen emisino akustikoa mugatzen dauen sistema eta ezaugarri teknikoak azaltzea.

2.6. Hosgabetze proiektua:

- Erabili beharreko materialen eta eraikitako eren definizinoa, ahalik eta zehatzena.
- Proiektuari lotutako isolatze mailea, definituta, gitxienez, ISO-140 arau-sailean erabilitako frekuentzia bandetan, baita UNE arauak eta honeekaz bat datozenak edo horren osagarri edo ordezko izan leikezan Europako Arauak.
- Ordenantza honetan zaraten arloan ezarritako aginduak beteten dauzala egiaztatzeko, aireko edo inpaktuko zaratatik isolatzeko kalkulu justifikagarriak aurkeztuko dauz, isolatze mailak eta inmisinoarenak dagozan ostalaritza eta bizitegi erabileretan. Frekuentzia banden arabera egingo dira kalkulu guztiak. Eskaria egiten dan momentuan hurreen dagozan erabileren arabera egingo dira justifikazino horreek.

- 2.7. Keak, gasak eta hatsak araztu eta kentzeko prozedura.
- 2.8. Ur hondakinak eta hondakin solidoak hustuteko sistema.
- 2.9. Instalazio higieniko-sanitarioak.
- 2.10. Eraikuntzarako Oinarrizko Arauak beteten dirala egiaztatu beharko dau, baldintza termiko, akustiko eta suteen aurkako babeserako.
- 2.11. Jendaurreko Ikuskizun eta Jostatzeko Jardueren zemendiaren 10eko 4/1995 Legea beteten dala egiaztatzea.

DIN-A4 neurritara tolestutako planoak, erlantz eta guztikoak, espediente normaldu bat egin ahal izateko. Honek planoak euki beharko dauz gitxienez:

- 3.1. Jarduerearen kokagunea azaltzen dauena, 1:1000 eskalan, jardueraren jarri gura dan eraikinaren kokapena azalduz.
- 3.2. Solairuak zelan dagozan bananduta azaltzen dauen planoak, 1:50 eskalan, makineria guztia non jarriko dan, lokal bakoitxak zenbat su-itxalgailu izango dauzan eta non jarrita eta larrialdietarako argien ezaugarriak eta kokapena.
- 3.3. Bere kasuan, indarreko NBE-CPI Oinarrizko Araua beteteko, solairuak guneeetan zelan bananduko diran edo lokala zein lokalak sektoreetan zelan bananduko diran.
- 3.4. Sekzinoan 1:50ko eskalan. Goiko eta beheko solairuei buruz jardueraren honek izango dauen egoera eta zertan erabiliko dan zehaztuz. Sekzino honeetan, lokalaren puntu bakoitxetik urteten daben altuera libre ezbardinak mugatuko dira, zorutik sabaira, instalazioak jarri eta neurri zuzentzaileak hartu eta gero.
- 3.5. Fatxadaren aurreko bidea, 1:50 eskalan, alboetako lokalak be harturik eta goiko solairurako pasabidea.
- 3.6. Proposatutako neurri zuzentzaileentzako hartutako eraikuntza bideen (ainguratzeak, aireko zaratarak edo inpaktuetara hobeto isolatzeko egiturak, egitura bikoiztuen arteko lotuneetako zehaztasunak, leiho, ate eta aireztatzeen urtekerakaz dagozan lotuneak, dardaren aurka jarriko diran elementuak non joango diran, elementu horreen mueta, etab.) zehaztasunak 1:20 eskalan.
- 3.7. Elektrizitatea, iturgintzea, estolderia, aireztatzea, aire girotua eta kimatizazioa orokorrean, 1:50 eskalan.

39. Artikulua. Taldea aldatzeko lizentziak

Goranzko zentzuan (1-2-3-4) taldez aldatzeko eskariak, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorra dinoanaren arabera, lizentzia barri modura tramitatuko dira, talde horrentzako Ordenantzeak dinoana betez.

Beheranzko zentzuan (4-3-2-1) jarduerak taldez aldatzeko eskariak, lokalak Ordenantza honetarako aurretiaz egokituta badauz eta beharrezkoa ez dabenean Obra lizentziarik eskatzea, zuzenean tramitatuko dira eta Dekretuz baimenduko da taldez aldatzea.

Obrak egitea beharrezkoa daben talde aldakuntzea, Obra eta Jarduera lizentziak tramitatu beharko dabez, eskatzen dan proiektu teknikoagaz batera, Ordenantza honen aginduak beteten dirala justifikatuz eta Jarduera Ekonomikoen Zerga barriaren agiria.

Taldea aldatzeak zarata-moteltze obrarik ez dakarrenean beragaz, lokala sartu gura dan talde barriarentzako nahiko intsonorizatuta dagoalako, eskatzailearen eritxiz, akustikan adituta dagoan enpresek neurketa egokiak egin beharko dauz, Ordenantza honek jarritako erizpideei jarraiturik eta gero txostena emonez. Halanda guzti be, udalak egiaztapenak egiteko eskubidea gordeten dau.

40. Artikulua. Lizentzien titularidadea aldatzea

1.- Talde guztietan, Jarduera Lizentzia daukien eta negozioa jabez eta titularrez aldatzea gura daben ostalaritzako establezimenduetaz ari gara.

2.- Titularidadea aldatzeko eskarian derrigorrez agertu beharko dira titular barriaren nortasunaren datuak eta titular biek izenpetu beharko dabez, emoten dauenak eta hartzen dauenak. Jarduera Ekonomikoen ganeko Zergan titular barriak altea emon izatearen egiaztagiria aurkeztu beharko dau.

3.- Jarduera Gogaikarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren Hirugarren Xedapen Iragankorrean aurreikusitako ondorioetarako, ez da baimenduko titularidade aldaketarik jarduerak momentu horretan legez eskatu leikiozan baldintzak bete eta neurri zuzentzaileak beteten ez badauz, horretarako, udal teknikariak, egiaztatu eta gero, jagokon txostena egingo dau udalak baimena emon edo ez erabagiteko.

4.- Titularidade aldaketea Taldea aldatzeari lotuta joan ezker, Jarduera lizentzia barria tramitatu beharko da batera, sartu gura dan taldearen proiektu teknikitik abiatuta.

41. Artikulua. Lehenetsunak eskarrietan

1.- Mueta honetako jarduerentzako lizentziak eskatutakotzat ulertuko dira, aurkeztutako agiria zuzena danean espedientea tramitera onartua izateko, udal zerbitzu teknikoek emondako txostena baiezkoa danean.

Lokal batentzako lizentzia eskatzen danean, urruntasunagaitik ezin bateratua bada lehenetsuna daukien beste eskatzaile batzuekatz –dokumentazinoa eskatu dabenek eta lehen paragrafoan eskatu dabeneagaz bat datorrena- eskaria ezeztatu egingo da, lehenetsuneko honeen tramitazinoagaz jarraituz.

Egun berean lizentzia bi eskatu badira, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, Sarrera Erregistroaren zenbakirik txikiena daukan espedienteak izango dau lehentasuna.

2.- Sailkatutako establezimenduren bat ipinteko aukereari jagokon kontsulta bati baiezeko erantzuna emoteak, ez dakar beragaz automatikoki jardueria ipinteko eskubide atzeraezina, kontsulta horri erantzuna emoten jakonetik eta lizentzia eskaria egin arte igarotako denboran, aurreko atalean ikusitako kasua emoten bada, tramitera onartu dan lizentzia eskariak izango dau lehentasuna.

3.- Eraikiten diran eraikin barrietan, ez dira onartuko eskariak honelako jarduerentzako, eraikinaren lehen erabilerako lizentzia emoteko aurretiaz eskatuta ez badagoz. Tratamendu ber-bera izango dabe indarreko planeamenduaren arabera Lehen Erabilerarako Lizentzia behar daben erabarritze, handitze eta abarrerako obretan.

42. Artikulua. Tolerantzia araubidea

1.- Ordenantza honek ikututako establezimenduetan, berau indarrean sartu aurretik erregularitasunez funtzionatzen egon ezker, honen aginduetara egokitzen ez badira, antolamenduz kanpo geratuko dira.

2.- Izakera orokorrez geratuko da, beraz, galazota, lokalaren azalera edo bolumena zein erabilera intentsidatea gainditzea.

3.- Halanda guzti be, Ordenantza hau indarrean sartu aurretik normaltasunez funtzionamenduan egon leikezan lokaletan, honelako jarduerak baimendu leikez:

- A) Konpontze eta mantentze lanak.
- B) Obrak eta instalazioak, lokalaren bolumena edo azalera gehitu barik, egokitu beharra daukienak, Ordenantza honen eskaerak era osoan edo partzialean.
- C) Azalera zabaltzea suposatzen daben obrak baimenduko dira, segurtasun baldintzak eta establezimenduaren ebakuazioa hobetzea helburu dabenean, baita higieniko-sanitarioak, eta gehitutako azalera, aurreko egoerari jagokonez, lokalaren azalera osoko % 30ekoa danean, ez da onartuko gero gehiago zabaltzea.

4.- Erabilera aldatzeari jagokonez, 4. artikuluan ezarritako sailkapenaren arabera, goiko talde batetik beheragoko batera aldatzeko bakarrik onartuko dira, eta ez alderantziz.

43. Artikulua. Iraungitea eta luzatzea

1.- Ordenantza honek ikututako establezimendu eta jarduerak jarri, legeztatu, lekuz aldatu edo handitzeko emoten diran lizentzia guztiak espresuki iraungita eta indar barik adierazoko dira, interesduna entzun eta gero, honako kasu honeetan:

- A) Obra edo instalazio lizentziak emoten diranetik sei (6) hilabeteren barruan obrak hasi ez diranean, edo, hasita be, 6 hilabetetik gora

geldituta badagoz, alkateak, eta, interesdunak eskatuta obra lizentzia luzatzeko epea emon jakola izan ezean.

- B) Aurreko A) atalean ezarritakoaz kanpo, sei (6) hilabeteren barruan obra txikiak edo instalazioa amaitu ez badira eta hamabi (12) hilabeteren barruan obra nagusiak amaitu ez badira.
- C) Sei hilabeteen edo handik gora jendearentzako itxita balego establezimendua eta arauz ezarrita edo baimendutako obra edo instalazioetatik zuzenean eratorren ez bada geldik egote hori.
- D) Emondako lizentzia behin betiko kendu jakolako.

2.- Lehenengo hiru kasuetan, luzapen bat emon leikio, epearen erdiko sasoi baterako, interesdunak eskaria arrazoitu eta gero, eta epe hori amaitu baino lehen aurkeztu ezkerro. Bai epe hori zein emoten jakon luzapena be, ezinbesteko arrazoiakaitik gertatutako atzerapenaren kalte barik ulertuko dira, administraduak behar dan moduan alegatu eta frogatzen badauz.

3.- Lizentziari uko eginez, titularrak jardurea era formalean eta espresuki adierazoten badau iraungitea. Pertsona titularrak bat baino gehiago izan ezkerro, adierazpen honek, guztien oneritxiaz eginda egotea eskatuko dau.

44. Artikulua. Ikuskapenak

Udal zerbitzu teknikoek egoki ikusten dauzan ikuskapen guztiak egingo dauz instalazioen funtzionamendu zuzena eta neurri zuzentzaile egokiak hartu dirala egiaztatzeko. Ikuskapen honeek ofizioz egingo dauz Administrazioak berak edota baten batek eskatuta salaketa idatzi bidez.

Establezimenduetako titularrek itzi egin beharko dabe ikuskapenak eta egiaztapenak egiten, eta egiten diranean aurrean egoteko eskubidea eukiko dabe.

Ordenantzea beteten ez dala egiaztatuta, funtzionarioak txostena egingo dau, eta, urratu diran artikuluak aitatur, zelako akatsak ikusi diran azalduko dau.

Egindakoa kontuan hartuta, jagokon udal organoari proposatuko jakoz egoki diran neurri zuzentzaileak. Establezimenduaren titularrari jakinarazoko jakoz, epe bat emonaz bete daiezan.

45. Artikulua. Lege eta arau urratzeak

1.- Ordenantza honen xedapenen aurka doazen egintzak edo hutsegiteak administraziozko lege-urratze modura hartuko dira.

Lege-urratzeak arinak, larriak edo oso larriak izan leikez sailkapen honen arabera:

2.- Falta arina izango da:

- 5 dB(A)raino gairiditzea baimendutako zarata mailak.
- Funtzionamenduan egoteko ordutegirik ez betetea.
- Ateak eta leihoak zabalik eukitea.

3.- Falta larria izango da:

- Onartu leikezan zarata mailak 5 dB(A)tik 10 dB(A)ra bitartean gainditzea.
- Ikusitako akatsak zuzentzeko udalak emondako agindurik ez betetea.
- Pertsona titularrek jarduerari edo instalazinoari buruzko datuak isiltzea, edo eskatutako informazioa gorde edo emon ez gura izatea.
- Ikuskatzaileen lana eragotzi edo beteten ez iztea.
- Urtebeteren barruan falta arina hirutan errepikatzea.
- Jarduerea funtzionamenduan dagoan ordutegi barruan aparatu mugatzailea amatatea, erabiltea edo aldatzea.
- Lokalak, instalazinoak edo zerbitzuak egoera txarrean eukitea, bai erabiltzaileentzat zein alboetako auzokoentzat segurtasun eta higiene mailak txartuz.

4.- Falta oso larriak izango dira:

- Onartutako zarata mailak 10 dB(A)tik gora gainditzea.
- Urtebeteren barruan 3 falta larri errepikatzea.
- Udal lizentzia barik establezimenduak aldatu, zabaldu edo erabiltea.
- Baimenak edo lizentziak tramitatzeko beharrezkoak diran datuak gorde edo faltsuak emotea.
- Udalak ezarritako kautelazko neurriak ez betetea.
- Jarduerak geldiarazo, itxi edo izteko agindurik ez betetea.
- Atariak, pasilloak, eskailerak edo urtekerako ateak galazotea instalazino, altzari edo beste edozein oztopogaz, larrialdi kasuetan erabiltea eragotzi leikienak.
- Suteei aurrea hartu edo amatateko instalazinoetan akatsak egitea edo urtekerako zein larrialdietako ateak txarto funtzionatzea.
- Pertsona edo ondasunentzako arrisku larriko egoerak gertatzen diranean eta baimendutako bezeroen kopururik handiena gainditu danean.
- Zabaltzeko lizentzia bako establezimenduen funtzionamendua.
- 18 urtetik beherakoei edozein muetatako alkoholdun edariak edo barbiturikoak emotea.

46. Artikulua. Zigorrak

1.- Lege-urratze oso larriei zigor honeek jagokez:

- 1.503 eurotik 30.051 eurora bitarteko isuna.
- 3 urtera arte jardueraren aldi baterako ixtea.
- Jarduerea behin betiko ixtea.

2.- Zigor honeek jagokez lege-urratze larriei:

- 901 eurotik 1.502 eurora bitarteko isuna.
- Urtebetera arte instalazinoak aldi baterako ixtea.

3.- Lege-urratze arinetan honako zigor honeek jarri leikez:

- 901 eurora arteko isuna.
- 3 hilabetera arte instalazinoak aldi baterako ixtea.
- Funtzionatzeko ordutegiaren murrizketak ez betetea, astebeterako jardueraren izteagaz zigortu leike.

47. Artikulua. Zigor-graduak eta ordezkotasunak

1.- Zigorrak, erizpide honeen arabera graduatuko dira: Pertsonen osasunean edo inguruan daukien eragina, gizartean sortzen dauen asaldurea, legez kanpo lortutako onurea, legea urratu dauenak gurata egin izatea, iruzur-portaerea, lege-urratzea errepikatu izatea.

2.- Administrazio erantzukizuna arintzen dauen inguruabar modura hartuko da, jarduerak pertsonen lasaitasuna eta segurtasunarengan daukazan eragin kaltegarriak gixitu edo kentzeko neurri zuzentzaileak hartzea.

3.- Zigortu dan lege-urratzea barriro egin ezkeru, bikoiztu egingo da zigorra edo lehen agindutakoa baino denbora bikoiztuan itxiko da.

4.- Ordenantza honetan aurreikusitako isunen ordezkaria, jarduerak izteagaz zigortu leike, hirugarrenen eskubideak babesteko eragingarriagoa izan leikela uste danean.

5.- Erabagi irmoz ezarritako isunen ordezkaria, jarduerak izteko zigorra jarri leike isunik ordaindu ez danean.

48. Artikulua. Zigor prozedura

Araudi orokorrean ezarritako zigor prozedurearen arabera tramitatuko dira jarriko diran zigorrak. Espedientearen edozein unetan jarri leikez egoki ikusten diran neurriak, pertsonen lasaitasuna eta segurtasuna bermatu ahal izateko.

49. Artikulua. Udalaren jarduna

1.- Zigor espedientea zabaltzeko organo eskudunek, edonoiz, arrazoituta erabagi ahal izango dabez beharrezkoak eta egokiak izan leikezan behin behineko neurriak, eraginkortasuna bermatu ahal izateko, lege-urratzearen ondorioak ekiditeko edo pertsonen eta ondasunen segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko.

2.- Neurri horreen artean hartu leikez: fidantzak aurkeztu beharra eukitea, zerbitzuak, jarduerak edo lizentziak aldi baterako etetea, segurtasuna, higiena edo erosotasuna kontuan izanda, pertsonen segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko egokiak eta beharrezkoak ikusten diran behin behineko neurri guztiak hartzea.

3.- Behin behineko neurria hartu eta gero, jagokon udal zerbitzu teknikoaren aldeko txostena behar izango dau.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA

Jarduera barriak ipintea edo dagozanak handitu edo zabaltzea, Ordenantza honen edo indarreko urigintza araudiaren arabera, antolamenduz kanpoko eraikinetan baimendu arren, ezin izango dabe, inondik eta inora kosturik gehitu planeamendua burutzean.

Horretarako, instalatzeko lizentzia emon orduko, Udalak jarduea desjabetzeko balioa onartuko dau udalak, eta lokalaren jabeak prezio hori onartu eta gero, planeamendua buruzetik eratorri leikezan indemnazazioak zehazteko oinarritzat hartuko da.

Desjabetzarako balioa zehaztu ostean, lehen esan doguna kontuan hartuta eta instalazino lizentzia emon eta gero, Jabetza Erregistroan inskribatu beharko da.

Jarduea zabaldu eta funtzionatzen hasteko lizentzia udalak emoteko, instalazino lizentzian agertzen diran neurri zuzentzaileak lokalean hartuta eukiteaz gain, beharrezkoa izango da Jabetza Erregistroan aurreko paragrafoan agertzen dan tramitea formalizatuta eukitea.

BIGARRENA

VI. Kapituluak (Zaratak Transmittitzeko Baldintzak) Zaraten eta Dardaren aurka Babesteko udal Ordenantzeak espresuki arautzen ez dauzan alderdi guztietan aplikauko da, hau indarrean ez dagoan bitartean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartzen danetik egiten diran lizentzia eta talde aldaketa eskari guztietan izango da aplikagarria.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen danetik, indar barik geratuko da 1997ko irailaren 6an Udalaren Osoko Bilkureak behin betiko onartu eban Ostalaritzako Establezimenduen Araudi Erregulatzailea.

AZKEN XEDAPENA

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean honen behin betiko testua argitaratzen dan hurrengo egunean sartuko da indarrean Ordenantzea.

ERANSKINA NEURRI JAGOKEZAN ESKAKIZUNAK

1.- Musika ekipoek egindako zaratea neurtzea

Jarduea funtzionatzeko baldintzak

0 dBtan (asetu barik) grabautako zarata arrosako zinta edo disko trinkoa gehieneko mailan erreproduziduko dau musika ekipoak.

Neurtzeko lekua

Lokalean zabalduko dira ausaz, neurtzeko puntuak. Guztiak egongo dira kokatuta 1,2 eta 1,8 metro artean, ahal bada, hormetatik eta leihoetatik 1,2 metrotik gora eta

hausnarketak eragin ahal izateko beste edozein gauzatik metro batetik gora., eta inoiz ez, honeetatik 0,5 metrotik hurreago, operatzailea bera be barruan dala.

Bost geldiene aukeratuko dira gitxienez. Lokalaren azalera publikoa 50 m² et 100 m² artean balego, 10 geldiene erabiliko dira eta 100 m²tik gorakoa izan ezker, 15 puntu.
Ebaluazino indizea

Ebaluazino indizea A (dB(A)) ponderazinozko soinu presinoaren batz bestekoaren mailea da. Puntu bakotxean hiru neurketa egiten dira, "slow" kontrasteagaz.

Neurtzeko epea laburra izango da, baina ez 8 segundo baino laburragoa, zaratearen iturria jarraia dalako eta kontrolagarria.

2.- Aireko zaratetatik isolatzeari eta inpaktuko zaratak transmitzeari buruzko neurketak.

Aireko zaraten isolatze eta inpaktuko zaraten transmisino neurtze lanak, azalduko diran nazinoarteko ISO arauen arabera burutuko dira neurketak, UNE arauak be kontuan hartuko dira eta etorkizunean honeen ordezt European ezarri leikezan ganerako arauak.

Lokalen artean aireko zaratak isolatzea: ISO-140 (IV). UNE-74-040 4. zatiagaz bat datozenak. Erreferentzia modura, (D) mailaren aldea edo (DnT) normalizadua erabiliko dira.

Inpaktuko zaraten transmisinoa: ISO-140 (VII). UNE-74-040 7. zatiagaz bat dator. (L'n) inpaktuko zaratearen presino mailea erabiliko da, edo (L'nT) normalizadua.

Goiko solairuan bizitegi edo ostalaritza erabilerea daukan jardueradun lokalaren inpaktuko zaraten aurreko presinoaren mailea, beti neurtuko da lokalean inpaktuen makinea jarrita eta hartzaile modura etxebizitza hartuta.

Zenbaki bakarrek indize deskribatzaileak:

Zenbaki bakarrek soluzino eraikigarriek eskaintzen daben babeska karakterizatzeo asmotan, proiektuan edo neurketan hartutako frekuentziaren menpeko balore saila isolamenduaren indize ponderadu edo inpaktuko zarata presinoan bihurtuko da, ISO 717 arau-sailean ezarritako metodo bidez edo etorkizunean hareen ordeztokoak edo osagarriak izan leikezan Europako Arauak.

ISO 171 arauaren 1. zatiaren indizeak:

- Dw maila ponderaduaren diferentzia gordina.
- DnT,w maila ponderadu normalizaduaren diferentzia.
- Edo, NBE-CA-88 Eraikiteko Oinarrizko Baldintzen Arauak agertzen dauen moduan, dB(A)etan.

ISO 717 arauaren 2. zatiaren indizeak:

- L'nw inpaktuko zarata presino mailea.
- L'nTw inpaktuko zarata presino normalizaduaren mailea.

- Edo, NBE-CA-88. LNA Eraikiteko Oinarrizko Baldintzen Arauak dinoan moduan, dB(A)etan.

Bermeon 2013ko azaroaren 11n
Alkatea
Idurre Bideguren Gabantxo